

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektua eskuil inteligente bat izango da, eskuil honek detektatuko ditu hainbat ahoko arazo. Honi esker sahiestuko ditugu ahoko gaixotasun larriak, bai hortzenak, bai periodontoarenak. Hala nola, txantxarrak, periodontitisa, etab.

• Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure proiektua aho higienezari zuzendutako proposamen bat da. Proiektu honen helburu nagusia pertsonen aho-osasun ona lortzen laguntzea da.

Gure proposamenari esker aho osasuneko arazo larriak eta bere ondorioak murriztea nahi dugu. Hortzen eta periodontoaren arazoak prebenitzea dugu helburu.

Hortzen arazoak:

Txantxarra aurrera ez egitean hurrengo hauek saihesten ditugu:

- Endodontziak.
- Exodontziak edo hortz galerak.
- Infekzioak.

Hortz enamelaren galera aurrera ez joatea

- Bruxismoa.
- Hortzak gogor eskuilatzea.
- Edari eta janari azidoak sahiestea.

Plakaren pilaketa

- Plaka pilatzen den eremuetan lertzoa bihurtu baino lehen abisatzen gaitu.
- Aholkuak ematen ditu, hala nola, hortz hariarekin edo interproximalekin ze eremuetan arreta gehiago izan behar duzun.

Periodontoaren arazoak:

- Eskuila erabiltzearen bidez gingibitisa eta oiaren atzerapena saihesten dugu.
- Gingibitisa izanez gero, periodontitisa saihesten dugu.
- Plaka pilatzen den eremuetan lertzoa sortzea saihesten du.

• Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

- Pazienteen aho osasuna zaintzen dugu prebentzioaren bitartez. Produktu hau berritzailea da, hortzak garbitzeko duen eraginkortasun handiagatik aparte, pazientearengan oinarritzen delako ere nabarmentzen da.
- Gure bezeroak produktu hau hainbat arrazoiengatik erosiko dute:

- **HIGIENE ONA IZATEKO TEKNOLOGIA AURRERATUA**

Gure hortz-eskuilak plaka eta bakterioak ezabatzeko eraginkortasuna hobetzen duen teknologia du. Kalitate handiko zurdak ahoko eremu guztietara iristeko diseinatuta daude, garbiketa sakona eta osoa ziurtatuz. Gainera, sentsoak azkarak ditu, behar bezala eskuilatu gabeko eremuak detektatzen dituztenak, denbora errealeko gida bat eskainiz eskuilatze teknika hobetzeko. Horrez gain, zure odontologoari informazioa eta irudiak bidaliko dizkio.

- **ERABILTZEKO ERRAZTASUNA**

Bezeroei haien behar espezifikoak arabera garbitzeko modu desberdinak hautatzeko aukera ematen die. Hau da, sentzibilitaterako, egunerokotasunerako eta garbiketa intentsoa egiteko moduak egongo dira. Horrez gain, eskuil azkar honek gelditu egiten da indar gehiegi erabiliz gero, horrela sustatzen dugu eskuilatze egokia.

- **AHOKO ZAINZA PERTSONALIZATUA**

Gure hortz-eskuilak hortzak garbitzeaz gain, aho-zainketaren esperientzia pertsonalizatzen du. Aplikazio osagarri batekin, bezeroek haien aurrerapena jarrai dezakete, gomendio pertsonalizatuak jaso eta eskuilaren konfigurazioa aldatu dezakete haien lehentasunen eta ahoko osasun-beharren arabera.

- **JASANGARRITASUNA SUSTATZEN DU**

Ingurumenaz arduratzen gara. Horregatik, gure hortz-eskuila material birziklagarri egina dago, eta hondakinak murrizten dituzten buru aldakorrak ditu. Gainera, aukerako eguzki kargagailuarekin dator, energia jasangarria erabiltzea sustatuz.

